

euskal herria 2020 (IV) > GOI MAILAKO IRAKASKUNTZA

Berezko unibertsitateak ez

Goi mailako irakaskuntza hobeki antolatzeko beharra aztertzeaz ados jarri dira, ez ordea Ipar Euskal Herriko unibertsitatea sortzeaz.

ENEKO BIDEGAIN
Baiona

Gogoetaren izenburuak ez du unibertsitatea aipatzen, baizik eta *goi mailako irakaskuntza*.

Nahiko argi ikusten da mugak non diren. *Euskal Herria 2010* gogoeta egin zutenean, 1994. urtean, «goi mailako irakaskuntza lurralde garapenaren oinarri estrategikoko bihurtu» behar zela hitzartu zuten. Dozena bat urteren buruan, balorazio «gazi-gozoa» egin dute. Batxilergotik landako ikasle kopuruak gora egin du, lehen baino prestakuntza handiagoa eskaintzen da orain, ikerlana indartu da. Baina irakasleak eskas dira, master eta doktoretza arloko adar gutxi dago, Ipar Euskal Herrian garatu beharreko ikasketak adarren zehazteko kontseilua ez zen abiatu, Nicolas Sarkozy Frantziako Barne ministroak 2003an aipatu unibertsitateen arteko kooperazioak erakunde publikoa ez zen sortu, eta ikasketen eta prestakuntzen koherentziarik ez dago.

Hori da *Euskal Herria 2020* txosteneko goi mailako irakaskuntzaren arloa landu dutenen diagnosi. Goi mailako irakaskuntza kudeatuko eta antolatuko lukeen egitura baten beharrezko ados jarri dira. Irakaskuntzako eta ikerkuntzako eragileak, erakunde pu-

■ Baionako unibertsitateko eskaintza (2004-2005)

Baionako fakultatea	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea	3. ZIKLOA
Zuzenbidea	222	147	66	21	61	10
Ekonomia Gestioa	79	30	49			1
Frantses letrak	54	34	27			
Euskal ikasketak	23	12	12	14	7	5
Kontabilitatea	62	51				
Fiskika eta kimika	62	55				1
Biziaren zientziak	43		36	29	23	6
Ingeniaritza					17	6
Zientzia teknikoak			28	22		
Eraikuntza	31	25	37	29	32	5
Enpresen kudeaketa	117	98				
Merkataritza teknikak	162	173				
Informatika	83	41				8
Banaketa eta logistika			17			
Multimedia			30			
Bezeroen kudeaketa			73			
Nazioarteko merkataritza			29			1
Lerra kirolak				21	31	2
Kirol enpresen garapena			56	55		
ESTIA ingeniari			142	136	98	12
Industria produkzio automatizatua				21	27	
Lerra kirolen ingeniari					31	

ITURRIA: GARAPEN KONTSEILUA

blikoetako ordezkariek eta eragile sozioekonomikoak bilduko litzuzke egitura horrek. Baina nola antolatu? Denak ez datoz bat.

MASA KRITIKOA. Batzuen ustez, unibertsitate teknologiko baten sortzearekin Ipar Euskal Herriko goi mailako irakaskuntza handizki garatu ahal izanen da. Beste batzuen ustez, ordea, gaur egungo joera unibertsitateak batzean dago, eta «Ipar Euskal Herriak ez dauka

nahiko masa kritiko». Horien ustez, unibertsitateen arteko sare bat sortu behar litzateke. Urtero 1.600 bat ikasle gaintzen dute batxilergoak Ipar Euskal Herrian. Horiei gehitzen bazaizkie jadanik Ipar Euskal Herriko fakultateko lehen urtean izena eman duten 2.254 ikasleak, bada ikasle kopuru bat. Baina arraz gutxi, unibertsitate handiekin konparatuz. Hala ere, gero eta ikasle gehiago dago, bereziki unibertsitate karrerak ez di-

ren eskoletan, hots, karrera teknologikoetan. Masa kritikoaren eta unibertsitatearen egokitasunaren eztabaida hori ez da bukatu.

Beraz, gaur egungo gogoetak ez doaz berezko unibertsitate baten sortzeko bidetik. Eragileak mahai berean bilduz, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren garapen koherente baten zutik ezartzeko estrategia abiatuko lukete. Horren emaitzen arabera ikusiko litzateke ea berantago unibertsitate teknologiko baten sortzea posible izanen den ala beste gisako egitura bat behariko den.

SEKTOREEKONOMIKOAREKIN. Lan talde hori sortzen bada, norabide estrategiko batzuei aurre egin behariko die. Goi mailako irakaskuntzaren, ikerketaren eta enpresen garapena elkarrekin lotzea izanen da horrietariko bat. Horretarako, hainbat sektore ekonomikoren beharrik kontuan hartzea litzateke egitura horren egitekoa. Goi mailako prestakuntzak aeronautika, laborantza, arrantza, lerra kirolak, eraikuntza, turismoa eta horrelako gaietara egokitzea proposatzen du *Euskal Herria 2020* egitasmoak.

Orain arteko ikasketak arloak sendotzeko eta garatzeko beharra ere aipatu dute. Alabaina, ikasle gehienak lehen zikloetan dituzte. Ipar Euskal Herrian oso gutxi dira bigarren ziklotik aurrerako ikasleak, hala nola %22 bigarren zikloan eta %1 hirugarren zikloan. Alor horren betetzeko premia aipatu dute unibertsitateetako eragileak. Horrek erran nahi du ikerketa taldeak lagundu behar izanen direla, teknikoki eta ekonomikoki.

Ikasleak erakartzeko, hori baino gehiago behariko da. Lehen zikloko ikasle gehienak lekukoak dira. Baina bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak arloak zabalteko, kanpoko ikasleak erakartzea baitezpadako ikusten dute. Lehen arazoa ikasleentzako bizileku gutxi izatea da. Horri buru egin behar diote, baina baita ere unibertsitateaz gaineko azpiegiturak sortzeari ere, hala nola ikasleentzako jatetxeak, kirola egiteko aukera eta abar. Hots, Baionan, Angelun eta Miarrizten ez dagoen ikasle bizia sortzea da erronka nagusietarikoak.

Erakargarritasuna «informazio argi» emanez ere lortuko dela diote. Besteak beste Ipar Euskal Herriaren dauden prestakuntza mota guztien bilduma eginen duen webgune baten sortzea, etorkizuneko beharrek aurreikustea edota Ipar Euskal Herriko eskaintza ezagutarazteko ekitaldi bereziak antolatzea lirateke aukera batzuk.



Baionako Unibertsitateko campusa. Egoitzak arras bati

Lan munduko aldaketa handi bat ere aukera izan daiteke. Hemendik aitzina ikasketak edo lanbide prestakuntzak ez dira ikasle garaira mugatuko. Langileek bizi osan jarraituko dituzte prestakuntzak, gero eta zabalduago baita bizi osoa ez karrera berean iragaita. Ipar Euskal Herriko goi mailako irakaskuntza sektorearen betekitza izanen da «edozein adineko biztanle guztiarentzako prestakuntza egokiak proposatzea». Horri loturik, lan munduan sartzea errazteko eta bazterketa eragozteko neurriak hartzea arretuak aipatzen dute txostenek. Prestakuntza zentroen eta enpresen arteko harremana garatzearen ideia atara dute berriz. Gogoeta horiek fruiturik emanen duten ala ez, beste eztabaida bat da.

Bihar: Euskara eta kultura

■ proposamena

■ **Medikuntza.** Bordele 2-ko unibertsitateko presidentek Baionan medikuntza arloko lehen urtea irekitzea proposatu du. Proposamen hori inork ez du azpimarratu. Baina, sortuta ere, zeinen egoitzan? Oraingo eraikinak Pauekoarenak dira.

Baionan, Angelun eta Miarrizten ez dagoen ikasle bizia sortzea da erronka nagusietariko bat

Etorkizunearan langileei prestakuntza jarraiki eskaintzeko joera sistematiko bihurtuko da

Batzuentzat unibertsitate teknologikoa sortu behar da, beste batzuek ez dute masa kritikorik ikusten

■ diagnostika

Aukerak

- Dinamika demografikoa. 2020an orain baino 50.000 biztanle gehiago izanen dira Ipar Euskal Herrian, orotara 310.000. Haatik, batxilergorako adinean izanen diren ikasleen kopurua antzekoa izanen da.
- Hego Euskal Herria. Unibertsitateen arteko elkarlana bultzatzeko aukera dago.
- Ipar Euskal Herriaren erakargarritasuna. Erakargarritasun horri balio handiagoa eman nahi diote, masterak eta doktoretzak egin nahi dituzten ikasleak ekartzeko.
- Unibertsitateak sarean antolatzea, elkarren arteko osagarritasunekin jokatzu.
- Lehiakortasun guneak sortzea, besteak beste, aeronautikaren eta lerra kirolen inguruan.
- Komunikazio eta informatika teknologia berrien garatzea.
- Bizi osan prestakuntzak jarraitzeko joera anitz zigoko da ondoko urteetan.

Ahuleziak eta mehatxuak

- Unibertsitate guneak sakabanatuak izatea. Angelun, Baionan eta Bidarten daude unibertsitate guneak, eta horrek zailtasunak sortzen ditu ikasle bizia egituratzeko.
- Irakaskuntza eskaintzaz informazio gutxi ematen da, eta bigarren eta hirugarren zikloko adarrek eskas dira.
- Ikerlari taldeek oraino ere ez dute ezagupenik.
- Ez dago etxebizitza aski ikasle guztiarentzat, eta diren ia guztiak sektore pribatuak dira. Horrek zailtasunak sortzen ditu, diru iturri txikiak dituzten ikasleentzat bereziki. Etxebizitzaren prezioaren goranzko joera arrisku bat izan daiteke etorkizunari begira.
- Lekuko kudeatzeko toki baten eskasa.
- Nazioartean erakargarri izan ezean eta ezagunak bihurtu ezean, unibertsitate gune txikiak desagertzera kondenatua dira.